




**Ekonomia  
arduratsu,  
zuzen eta  
solidario  
bateranzko  
urratsak**

# EKONOMIA ZIRKULARRA

Koordinazioa eta edukiak \_ **Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomialariak**

Proposamen metodologikoa \_ **Julio Priego (Mugarik gabeko Ekonomialariak)**

Itzulpena: **Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l.**

Diseinu eta maketazioa \_ **Farapi Koop. Elkartea**

Honakoak egin ditzakezu \_

- • **Partekatu** — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan
- • **Moldatu** — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu

Honako baldintzen arabera \_

- • **Aitortu** — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- • **EzKomertziala** — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako
- • **PartekatuBerdin** — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Lizentzia \_

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

\* Material hau 2025eko apirilean idazten bukatu zen

## EDUKIA

### UNITATE DIDAKTIKOAREN TESTUINGURUA.....4

|                                               |   |
|-----------------------------------------------|---|
| Bidezko ekonomiaren alde egiten dugu lan..... | 5 |
| Helburuak.....                                | 6 |
| Gaitasunak.....                               | 7 |
| Metodologia.....                              | 7 |
| Denboralizazioa.....                          | 7 |


### UNITATEAREN GARAPENA.....8


|                              |    |
|------------------------------|----|
| 1. saioa.....                | 10 |
| 2. saioa.....                | 20 |
| Ekonomia zirkularra.....     | 20 |
| 3. saioa.....                | 26 |
| Ekintzailtza zirkularra..... | 26 |

### BALIABIDE OSAGARRIAK .....30

|                            |    |
|----------------------------|----|
| Beste saio batzuk.....     | 31 |
| Beste dinamika batzuk..... | 31 |
| Beste material batzuk..... | 33 |
| Bibliografia.....          | 34 |

### ERANSKINAK.....36





# UNITATE DIDAKTIKOAREN TESTUINGURUA

**Mugarik Gabeko Ekonomialariak (MgE)** erakunde independente, akonfesional eta apartidista bat da, ekonomialariek sustatua, eta era guztietako pertsona solidarioak biltzen dituenena.

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde bat (GGKE) gara. Espazio propioa betetzen dugu sorreratik, eta errealitatearen arlo jakin batean egiten dugu lan; ekonomiaren arloan, hain zuzen ere. Arlo horrek pobreziarekin eta desberdintasunekin dituen erlazioak ere lantzen ditugu.

Gure ustez, **sareko lana eta lan kooperatiboa** funtsezkoak dira erakundearen eginkizunerako, eta, horregatik, erakunde eta mugimendu sozialen zenbait plataforma eta saretan aktiboki parte hartzen du.


Gure helburu nagusia aldaketak eragiten laguntzea da, giza eskubideetan oinarritutako **egitura ekonomiko eta sozial bidezkoak eta solidarioak** lortzeko. Giza eskubideak erabat gauzatzen direla bermatu eta bizitzaren jasangarritasuna sustatuko duen garapen-eredu baten alde egiten dugu.

## Bidezko ekonomiaren alde egiten dugu lan

Por este motivo, la Unidad Didáctica está diseñada con lenguaje inclusivo, claro y conciso. Desde **un enfoque basado en los derechos humanos**, incorporando los objetivos y competencias que deben adquirirse durante el desarrollo de la asignatura.

Unitate didaktiko honen helburua erdi-mailako eta goi-mailako **Lanbide Heziketako irakasleei laguntzea** da. Gure asmoa unitatea prestakuntza-ziklo guztietan zeharka txertatu ahal izatea da, **Enpresa eta Ekimen Sortzailea ikasgaiaren bidez**.

Horregatik, unitate didaktikoa hizkuntza inklusibo, argi eta zehatzarekin diseinaturik dago. **Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik**, ikasgaiaren garapenean lortu beharreko helburuak eta gaitasunak txertatu dira.



## Helburuak

Unitate didaktiko honen helburu nagusia bidezko ekonomia sustatzea da.

Horretarako, **helburu espezifiko** hauek proposatu dira:

- Lanbide Heziketako hezkuntza-komunitateak (irakasleak eta ikasleak) **kontzientzia kritikoa** hartzea egungo eredu ekonomikoaren ondorio eta inpaktuen aurrean.
- **Ekonomia zirkularraren** kontzeptua lantzea eta garatzea, horrekiko interesa piztea, eta ikasleen parte-hartzea eta pentsamendu kritikoa sustatzea.
- Hezkuntza-komunitateari negozio-plan batean funtsezkoak diren arloak identifikatzen eta Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako eredu batean haiek aukera bihurtzen lagunduko dioten **tresnak** garatzea.

Hauek dira unitate didaktiko honen ikaskuntza-prozesurako planteatutako **prozedurazko eta jarrerazko helburuak**:

- **Ekonomia** zer den jakitea, eta, modu kolektiboan, kontzeptu hori lantzea eta hari buruz hausnartzea.
- **Beharren eta asegarrien** ikuspegia aztertzea eta ulertzea.
- Egungo eredu ekonomikoak **gizartean eta ingurumenean zer inpaktu** dituen ulertzea.
- **Ekonomia zirkularra** zer den jakitea, eta, modu kolektiboan, kontzeptu hori lantzea eta hari buruz hausnartzea.
- **Informazioa** bilatzea, aukeratzea eta interpretatzea, informazio hori modu kritikoan eta arduratsuan erabiltzea, lortu nahi den helburuaren arabera, eta besteei modu antolatu eta ulergarrian komunikatzea.
- Beste **ekonomia eraldatzaile** batzuk ikertzea eta ulertzea.
- Taldean lan egiteko, negoziatzeko, gatazkak konpontzeko eta planifikatzeko **gaitasunak hobetzen** lagunduko duten jarduerak egitea.
- **Enpresa-proiektu** bat gauzatzeko beharrezkoak diren alderdi orokorrak eta elementuak definitzea, betiere ingurumena errespetatuz.
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak** eguneroko bizitzako lan-tresna eraginkor gisa erabiltzea.

## Gaitasunak

- **Hizkuntza**-gaitasuna.
- **Informazioa** tratatzeko eta teknologia **digitala** erabiltzeko gaitasuna.
- Norberaren **autonomiarako eta ekimenerako** gaitasuna.
- **Komunikazio**-gaitasuna.
- **Gizarterako eta herritartasunerako** gaitasuna.
- Ikasten **ikasteko** gaitasuna.
- **Mundu fisikoa ezagutu** eta harekin elkarreragiteko gaitasuna.

## Metodologia

Metodologia **magistral eta partizipatiboa** edukien garapenean, eta lankidetzakoa ariketak egitean. Ikuspegi metodologiko horrek parte-hartzea eta bizi-penak sustatu nahi ditu, ikaskuntza eraginkorra eta parte-hartzaileen gaitasunen garapena bermatzeko.

**Saioek egitura komuna dute, eta honela gauzatuko dira:**

- **Ongietorri**-dinamika, *warm-up* formatuan, garatu beharreko gaiaren sarrrera egiteko **(10-15 minutu)**.
- Landu beharreko edukia **aurkeztea eta garatzea**. Edukiak aurkeztu, eta proposatutako dinamiken eta materialen bidez landuko dira **(50-60 minutu)**.
- **Amaierako** dinamika, hausnarketa kolektiboa sustatzeko **(10-15 minutu)**.

## Denboralizazioa

Aurkezten den unitate didaktikoa **90na minutuko 3 saio** teoriko-praktikok osatzen dute.



# UNITATEAREN GARAPENA

## 1. saioa. Zer da ekonomia?

■ Saio honetan, **ekonomiaren definizioa** garatu, eta egungo eredu ekonomikoak **gizartean eta ingurumenean eragiten** dituen ondorioak landuko dira.


## 2. saioa. Ekonomia zirkularra.

■ **Ekonomia zirkularren** kontzeptua landu, eta horri buruzko **hausnarketa** egingo da, Ekonomia linealarekin alderatuta.

## 3. saioa. Ekintzailtza zirkularra.

■ **Arrakasta-kasuak eta galdera inspiratzaileak** abiapuntutzat hartuta, helburua izango da ohiko ekintzailtza bat **ekintzailtza zirkular** bihurtzeko hartu daitezkeen neurriei buruz lana taldetan egitea.

Nola jarri praktikan unitate didaktiko hau? »



# 1. saioa

## Zer da ekonomia?

Gidoia:

- Unitate didaktikoaren **aurkezpena (5 minutu)**.
- Hasierako dinamika:** Zer da ekonomia? **(5 minutu)**.
- Saioaren **garapena (70 minutu)**.
  - Zer den ekonomia eta Max-Neefen arabeko beharren ikuspegia **(30 minutu)**.
  - Ondorioak dira, ez kanpo-efektuak **(30 minutu)**.
  - Denboraren erabilerari buruzko inkesta **(10 minutu)**.
- Amaierako dinamika:** Nola aldatuko dugu hau? **(10 minutu)**.



Saioa garatzeko, **Mugarik Gabeko Ekonomialarien lehen aurkezpena** erabiliko da, ikasgelan proiektatzeko *(ikusi 1. eranskina)*.

### » UNITATE DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA



5 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea eta Mugarik Gabeko Ekonomialarien lehen aurkezpena *(1. eranskina)*.
- **EDUKIAK:** Unitate Didaktikoaren edukien aurkezpena.
- **IRAUPENA:** 5 minutu.

Saioa hasteko, unitate didaktikoa eta haren egitura eta edukia aurkeztuko ditugu.

### » HASIERAKO DINAMIKA



5 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Arbela edo proiektorea Mentimeterrekin.
- **EDUKIAK:** Ekonomia definitzeko ideia-jasa.
- **IRAUPENA:** 5 minutu.

#### ■ ARIKETA:



Galdera hau egingo diegu ikasleei *(1. eranskina, 3. orrialdea)*: **Zer da ekonomia?** Eta ondoren, beste galdera hau, ideia-jasa sustatzeko: **Zer hitz etortzen zaizkizue burura ekonomian pentsatzen duzuean?**

Lehen dinamika hau modu analogikoan egin daiteke, eta, horretarako, ikasleek esandako **hitz guztiak** arbelean **idatzi** behar dira. Modu digitalean ere egin daiteke. Modu digitalean egitea aukeratuz gero, Mentimeter baten bidez egin daiteke (5 minutu). Kode bat sortu behar da, ikasleak webgunera sartu ahal izateko, eta, gero, hitzak telefono mugikorraren bidez han gehitzeko. Pantaila edo proiektagailu baten bidez, hitz-hodei bat nola sortzen den ikusi ahal izango duzue. Hona hemen tutorial bat.

- » Horren ondoren, ekonomiari buruzko definizio ugarietako bat sartuko dugu (gure pentsamendu-korrontetik hurbilen dagoena izan gabe, onartuenetako eta ulertzeko errazenetako bat). *(1. eranskina, 4. orrialdea)*.



“Giza beharrak asetzeko asmoz, baliabide urriak helburu alternatiboen artean esleitzeko modurik onena aztertzen duen gizarte-zientzia da”.





## SAIOAREN GARAPENA

### » 1. DINAMIKA

**Zer den ekonomia eta Max-Neefen arabeko beharren ikuspegia**



30 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea, Mugarik Gabeko Ekonomialarien lehen aurkezpena (1. *eranskina*) eta beharren piramidea (2. *eranskina*).

■ **EDUKIAK:** Aurre-ideia batzuk aurkeztuko ditugu unitatearen zentzua adierazteko, eta interesa eta eztabaida pizteko.

■ **IRAUPENA:** 30 minutu.



#### ■ ARIKETA:

Ekonomiaren definizio batetik abiatuta (lehen aipatutakoa: **“Giza beharrak asetzeko asmoz, *baliabide urriak* helburu alternatiboen artean esleitzeko modurik onena aztertzen duen gizarte-zientzia da”**), **baliabide urriak** eta **giza beharrak** zer diren landuko dugu. Horretarako, 1. *eranskineko* aurkezpena erabiltzen jarraituko dugu.

Grezierazko **“Oikonomos”** hitzean duen jatorri etimologikoarekin hasiko gara. Hitz horrek **etxearen administrazioa** esan nahi du: *Oikos*-ek etxea esan nahi du, eta *Nemein*-ek, berriz, administrazioa.

Orduan, **ikasleekin hitz egiteari** ekingo diogu

■ *Zer dira baliabide urriak? Aipa al dezakezue baten bat?*

(Interakzio gutxi dagoela ikusiz gero, egokia izango litzateke adibideren bat ematea; ur geza, esate baterako. Beste adibide batzuk ematen hasiko dira pixkanaka: elikagaiak, erregai fosilak, mineralak...).

*Zertan dira antzekoak baliabide horiek guztiak? Erantzuna: naturan dutela jatorria.*

» **OHARRA:** Dirua ez da ondasun urria; Europako Banku Zentrlean inprimatu baino ez da egin behar.



Orain, eztabaida gehien sortzen duen eta, beraz, lehen saio honetan aberasgarriena izan daitekeen puntuan sartuko gara: **beharren kontzeptuaren** inguruan lan egitea. Zuzenean egingo diegu galdera ikasleei: *anzamos directamente la pregunta al alumnado: Zer dira beharrak? (1. *eranskina*, 5. *orrialdea*).*

Ez dugu definiziorik proiektatuko; eztabaida sustatuko dugu, kontzeptua eta beharren ikuspegiaren *marketin*-alderdiaren inplikazioak lantzeko. Lan-tresna gisa, definizio batzuk eskaintzen ditugu irakasleentzat.



**“Beharrak izaki bizidun batek irauteko eta garatzeko ezinbestean behar duenaren adierazpena dira. Psikologian, beharra gabezia baten bizipenari lotutako sentimendua da, falta hori ezabatzeraz, joera asetzera eta gabezia-egoera zuzentzeraz bideratutako ahaleginarekin erlazionatutakoa.”<sup>1</sup>**

<sup>1</sup> *Diccionario de Psicología (DORSCH, FRIEDRICH).*



**“Gizakiak bizitza betea eta osasuntsua izateko behar dituen gauzak dira giza beharrak. Adibidez, osasuna, elikadura, babesa eta afektua, besteak beste.”**

*Economipedia.*

Erantzunik ohikoena honako hau izaten da: jatea, lo egitea, arnasa hartzea, etxe bat... Normalean Maslowen behar fisiologikoeekin lotzen dituzte.

Egile hori eta beharren piramidea (2. *eranskina*) gogora ekar ditzakegu, beharrei dagokienez, hezkuntza arautuan lantzen den bakarra baita. Jarraian, honako galdera hau egingo dugu: *Zuen ustez, beharrak berberak al dira mundu osoan?*

### » KONTUZ!

Galdera hori egindakoan, beharrak mundu osoan berdin asetzen al diren ulertu ohi da, eta ez da hori kontua.



Hemen benetan landu nahi duguna da beharrak berezkoak dituela gizakiak; hau da, **ezaugarri ontologikoa** dela, giza beharrak gutxi eta finituak direla, eta sailkatu egin daitezkeela. **Beharrak ez dira sortzen**. Pertsona izateagatik behar batzuk ditugu, eta horiek berberak dira mundu osoan. Baina, noski, hori ez da erantzuna izango, eta ez dugu nahi hori izatea, eta eman ere ez dugu egin behar; aldiz, eztabaidaren bidez landuko dugu.

Galderari helduko diogu berriro: *Zuen ustez, beharrak berberak al dira mundu osoan?*

Ezezko biribila entzutea da ohikoena, baina, agian, norbaitek oinarriko beharrak berberak direla esango du. Egokia litzateke erantzuna “Ez” dela uste dutenek eskua altxatzea eta argudiatzea. Eta galdetu egin behar zaie ea norbaitek uste duen beharrak berberak direla edo norbaitek beste iritziren bat duen.



Argudioak entzun eta haiek gidatzen saiatuko gara, zalantzan jarriz munduko beste leku batzuetan jendeak ez duen jan edo lo egin beharrik... Gehienek oinarritzko beharrak berberak dira esango dute azkar. Orduan galdetu behar zaie ea beste eremu batzuetan jendeak ez duen kidezarik behar (adiskidetasuna, maitasuna...) edo autorrealizaziora iristea. Eta baliteke ikasle batzuek ezetz esatea: *“Ez dute ia jatekorik eta nola pentsatuko dute, bada, horretaz?”* (Oso eztabaidagarria da, Maslowen beharren hierarkia ez baita enpirikoki frogatu). Arrazoi dutela ikusarazteko moduan erantzun daiteke, baina adierazi egin behar zaie galdera ez dela beharren asebetetze-mailari buruzkoa, baizik eta, pertsona izateagatik behar jakin batzuk ditugula uste al duten, jaioterria eta jaioturtea kontuan hartu gabe.

Ondoren, **Manfred Max-Neef** aurkeztu, eta Txileko ekonomialari horrek Maslowen ikuspegiaren ikuspegi desberdina planteatu zuela adierazi behar da (*1. eranskina, 6. eta 7. orrialdeak*).

[illegible]

Hori oinarritzeko, laguntza-materialean datorren beharren matri-  
zeaz proiektatu, eta planteatutako beharrak aipa daitezke.

- Irautea
- Babesa
- Afektua
- Adimena
- Parte-hartzea
- Aisia
- Sorkuntza
- Identitatea
- Askatasuna

Izateko, edukitzeko, egiteko eta egoteko kategoria existentzialen arabera ere definitzen dira beharrak.

» KONTUZ!

Zati hau konplexuagoa da azaltzeko, eta, beraz, nahasmen handirik sortu nahi ez badugu, asegarriak ondasun eta zerbitzuekin parekatu ditzakegu, baina **asegarriak**, benetan, **ez dira ondasun ekonomikoak**.

**Izateko, edukitzeko, egiteko eta egoteko moduak dira asegarriak, eta giza beharrak betetzen laguntzen dute.** Besteak beste, antolatze moduak, egitura politikoak, praktika sozialak, baldintza subjektiboak, balioak eta arauak, espazioak, testuiguruak, portaerak eta jarrerak barne hartu ditzakete.

**Ondasunak**, asegarri baten eraginkortasuna handitu edo txikitu dezaketen objektu eta tresna gisa ulertuta, **subjektuak asegarriak indartzeko, eta, hala, bere beharrak bizitzeko baliatzen dituen bitartekoa dira**. Esan bezala, beraz, asegarri baten eraginkortasuna aldatu dezaketen objektuak eta tresnak dira, eta, horrenbestez, behar baten eguneratze-atalasea aldatzen dute, zentzu positiboan edo negatiboan.

Hortaz, asegarriak beharren alderdi historikoa dira, eta ondasun ekonomikoak, berriz, haien gauzatzea.






Beharra eta asegarriak edo asegarriak estimulatzeko on-dasunak bereizteko adibide gisa, mugikorra erabil daiteke, eta hau galdetu behar zaie ikasleei: *Max-Neffen arabera, zer da hau, behar bat edo asegarri gisa erabil daitekeen tresna bat?* Bigarren aukera hartuko dugu, hain zuzen ere. Izan ere, lehen, pertsonak eskutitzen edo uso mezularien bidez komunikatzen ziren, edo juglare bat iristen zen, eta gertatutakoa kontatzen zuen.

Max-Neefek zenbait asegarri bereizten ditu:

Hau da atal honetako ideiarik garrantzitsuenak: Beharrak ez dira sortzen. Baztertu egin behar dugu *"bezeroengan beharrak sortu behar direla"* dioen marketin-dogma.

» Beharrei eta Max Neefi buruzko bloke hau ixteko, **garapena-ren kontzeptua** labur-labur landuko dugu.

- Garapena pertsonari dagokio, eta ez objektuei.
- Garapen-prozesurik onena pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duena izango da.
- Bizi-kalitatea pertsonak oinarritzeko giza beharrak behar bezala asetzeko dituzten aukeren arabera izango da.



## » 2. DINAMIKA

### Ondorioak dira, ez kanpo-efektuak



30 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea, Mugarik Gabeko Ekonomialarien lehen aurkezpena (1. *eranskina*), eta beharren piramide (2. *eranskina*).

■ **EDUKIA:** Sistema ekonomikoak eragiten dituen ondorioak landu.

■ **IRAUPENA:** 30 minutu.

#### ■ **ARIKETA:**

Beharrei buruz hausnartu ondoren, 1. *eranskineko* (4. orrialdea) ekonomiaren definizioarekin jarraituko dugu, sistema ekonomikoak eragiten dituen ondorioei buruz lan egin ahal izateko orain.

Aurretik planteatutako ekonomiaren definizioari helduko diogu berriz ere: **"Giza beharrak asetzeko asmoz, baliabide urriak helburu alternatiboen artean esleitzeko modurik onena aztertzen duen gizarte-zientzia da"**.

Gero, hausnarketa hau egingo dugu: *"Baina... Onena norentzat?"* Teoria neoklasikoa (neoliberalismoaren oinarria) lekua hartuz joan da, bakar eta nagusia izan arte, ongizatea lortzeko funtsezko estrategia gisa onura ekonomikoa maximizatzeko helburuan oinarrituta.



■ **Bideo** argigarria: *"Haz Economía, si no la haces te la hacen"*.



Ikasleei egungo sistema ekonomikoaren ondorioei buruzko zifra batzuk eskaintzen saiatuko gara (1. *eranskina*: 9., 10., 11. eta 12. orrialdeak), haiek beren iritzia eman dezaten gai horri buruz. Datuen jatorrizko txostenak ere ematen ditugu, kontsulta sakonagoa egin nahi dutenentzat.

*Mugarik gabe haz gaitezke baliabide mugatuak izanda? Zer ondorio ditu horrek?*





### 1. Desberdintasunak.

Munduko biztanleriaren % 1ek beste % 99k adinako aberastasuna du.

252 gizonek 1.000.000.000 emakumek eta neskatok baino aberastasun handiagoa dute Latinoamerikan, Afrikan eta Kariben.



### 2. Ingurumen inpaktua.

Hemen, ikasleekin aztarna ekologikoaren kontzeptua lantzea komeni da.

*“Aztarna ekologikoak populazio batek kontsumitzen dituen baliabide guztiak ekoizteko eta populazio horrek sortutako hondakinak xurgatzeko beharrezkoak diren lur eta itsaso biologikoki produktiboen azalera neurtzen du”.*

2,8 planeta beharko lirateke jende guztiak EBko herritar arrunt batek bezala kontsumituko balu. Espainiako aztarna ekologikoa 3,8 ha-koa da biztanleko. Eta karga-ahalmena, berriz, 1,4 ha-koa. Pertsona bakoitzak 24.000 m<sup>2</sup>-ko lur produktiboa hartzen du beste herrialde batzuetatik; hau da, gure mugetatik kanpoko 2,5 futbol-zelai gure zerbitzu bakar eta eskusibora daude.



### 3. Zaintza-lanak ikusezin egitea.

Landu beharreko gaiaren xedea ez bada ere, Zainketen Ekonomia kontzeptua sar dezakegu. Zaintza-lanak ikusezin egitearen gaiarekin jarraituz, lehendabizi, enpleguaren eta lanaren arteko aldea azpimarratu behar da. *Enpleguak ordainsaria du, eta lanak ez du zertan izan.*

Ikasleei pertsona guztiok lan egiten dugula ikusarazten saiatuko gara. Haiek ere lan egiten dute, ez bakarrik ikastetxera egunean 5 edo 6 orduz joaten direnean, baita janaria prestatzen dugunean, erosketak egiten ditugunean eta garbigailua jartzen dugunean ere, adibidez.

Laguntza gisa, icebergaren irudia erabil daiteke (*1. eranskin, 12. orrialdea*). Han ikusten da ekonomia erreproduktiboa urpean ikusezin gelditzen dela, baina hori gabe ekonomia produktibo eta ikusgaiak ez lukeela sostengurik izango.



Bloke hau amaitzeko, **denbora lan-jardueren eta jardueren pertsonalen artean nola banatzen den pentsatu**, eta ekitatea eta ordaindu gabeko lanen aintzatespena sustatu behar dira; beraz, ikasleek denboraren erabilerari buruzko inkesta egingo dute (10 minutu).

» **OHARRA:** Hala ere, Zainketen Ekonomiari saio didaktiko bat edo bi eskaintzea gomendatzen da. Horretarako, egokia izango litzateke MgE erakundearen bi dinamika espezifiko erabiltzea (gero material osagarri gisa azalduko dira).

### » AMAIERAKO DINAMIKA Nola aldatuko dugu hau?



10 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea eta Mentimeter.
- **EDUKIAK:** Ekonomia zer izatea gustatuko litzaigukeen
- **IRAUPENA:** 10 minutu.



■ **ARIKETA:**  
**Ekonomia zer izatea gustatuko litzaigukeen** definitzea:

- Zer hitzekin aurkeztu nahiko genuke gure ekonomia ideala?
- Ekonomiak zer ezaugarri izatea nahiko genuke?

Beste Mentimeter bat erabiltzea proposatzen dugu, ikasleek hiru hitz proposa ditzaten (10 minutu). Hausnarketak:

- Zer desberdintasun daude gure lehen hiru hitzekin alderatuta?
- Zergatik ez da zainketei buruzko ezer ere atara, ekonomiari buruzko hasierako ideia-jasa egin dugunean?

## 2. saioa

### Ekonomia zirkularra

Gidoia:

1. Hasierako dinamika (10 minutu).

2. Saioaren garapena (50 minutu).

- Bideoa ikustea (10 minutu).
- Jarrera hartzeko dinamika (25 minutu).
- Nolakoa izango litzateke ekonomia benetan zirkularra? (15 minutu).

3. Hausnarketa, baliabide osagarriak erabiliz (20 minutu).

4. Amaierako dinamika: ¿Cómo cambiamos esto? (10 minutu).

#### » HASIERAKO DINAMIKA



10 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Mentimeter (aukerazkoa).

■ **EDUKIAK:** Ideia-jasa.

■ **IRAUPENA:** 10 minutu.

#### ■ **ARIKETA:**

Lehendabizi, ideia-jasa bat proposatuko dugu, landuko dugun kontzeptua ikasleen egunerokotasunera hurbiltzeko. Galdera hauek egin daitezke, besteak beste:

- Ingurumenarekin lotutako zer arazo ezagutzen dituzu?
- Zuen ustez, eragiten al dizuite eguneroko bizitzan?
- Nork egin behar du zerbait, egoera horiek lehengoratzeko? Estatuak, enpresek edo herritarrek?

Mentimeter erabili, eta ikasleen erantzunak bisualki jaso daitezke.

## SAIOAREN GARAPENA

Bigarren saio honen helburu nagusia da Ekonomia zirkularren kontzeptua ikasleei hurbiltzea, ekonomia horren garrantzia lantzea eta ikasleei Ekonomia linealaren eta Ekonomia zirkularren arteko aldea planteatzea (50 minutu).

#### » 1. DINAMIKA Bideoa ikustea



10 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea eta bideoa: Economía Circular: descubre lo que es antes de que reviente el Planeta.

■ **EDUKIAK:** Egungo sistema ekonomikoaren mugei eta ondorioei buruzko hausnarketa.

■ **IRAUPENA:** 10 minutu.

#### ■ **ARIKETA:**

Economía Circular: descubre lo que es antes de que reviente el Planeta izeneko bideoan (3:32tik 10:47ra), egungo sistema ekonomikoaren mugei, ekoizpen linealeko sistemari, sistema naturalarekiko banantzearen ondorioei eta Ekonomia zirkularren nozio nagusiei buruz hausnartzen da.

#### » 2. DINAMIKA Jarrera hartzeko dinamika



25 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** BAI/EZ kartelak, koloretakoak, hatz lodia goraka edo beheraka dutenak... eta fitxa, galdera bakoitzaren grafikoak eta edukia ikusteko.

■ **EDUKIAK:** Zenbait galdera planteatu, ikasleek jarrera hartu dezaten.

■ **IRAUPENA:** 25 minutu.



### ■ ARIKETA:

Jarraian, zenbait **galdera** planteatu behar dira, bloke bakoitzak bere arrazoibideak azaldu ditzan, jarrera hartu ondoren. Datu, hausnarketa edo tresna batzuk ematen dira, irakasleak ikasgelan erabili ahal izateko. (Deskargatu fitxa, galdera bakoitzaren grafikoak eta edukia ikusteko) (25 minutu).

- Bideoan adierazi bezala, benetan al da beharrezkoa Ekonomia zirkularra?
- Ekonomia zirkular baterantz aurrera egiteko, aldatu egin behar al ditugu gure kontsumo-ohiturak (bideoan adierazi bezala mugikorra aldatzeari uko egin) edo ekoizpen-modua aldatu behar dute ekoizten dutenek?
- Ados al zaudete bideoko adierazpen honekin: "birziklatzea lagungarria da, baina ez da nahikoa"?
- Gure etxeetan hobeto birziklatzea al da kontsumitzaileok egin dezakegun gauza bakarra?
- Ba al dakizue zer diren urrezko 3 arauak? Eta urrezko 7 arauak?



Enuntziatu edo galdera bakoitzaren ondoren, **ikasleak gelaren alde batean jarriko dira ados baldin badaude, eta, beste aldean, kontra baldin badaude**. Dinamika horren bidez, parte-hartzea sustatu, bi jarreraren arteko interpelazioa erraztu, eta eztabaida sendoagoa ahalbidetzen da.

Ikasgelaren edo taldearen baldintzengatik alde batean edo bestean jartzeko dinamika bideragarria ez bada, ikasle bakoitza bere lekuan dagoela ere egin daiteke, eskua altxatuz edo jarrera erakusteko beste edozein mekanismoren bidez (BAI/EZ kartelak, koloretakoak, hatz lodia goraka edo beheraka dutenak...).



## » 3. DINAMIKA

### *Nolako izango litzateke ekonomia benetan zirkularra?*



15 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Materialik gabe.

■ **EDUKIAK:** Ezaugarritze ariketa.

■ **IRAUPENA:** 15 minutu.

.....



### ■ ARIKETA:

Azkenik, eztabaidetan ateratako ondorio nagusiak jaso ondoren eta jarduera amaitzeko, **hausnartutakoaren arabera ekonomia zirkular baten ezaugarriak eman behar dira**

*Nolako izango litzateke ekonomia benetan zirkularra?*

Ekonomia zirkularra, izenak aditzera ematen duen bezala, materiaren zikloak ixtean oinarritzen da, eta horrek biosferaren erritmoetara egokitu behar duela esan nahi du. Beraz, ekonomia zirkularrak ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

1. Sistemikoa: giza gizarteak ez dira gai zikloak bakarka ixteko. Gainerako ekosistemekin eta ekosistema horietako kideekin elkarrekiko erlazioan egin behar da lan.
2. Hondakin biodegradagarriak edo inerteak denbora-escala ekosistemikoetan; lehengai kutsatzaileak edo iraunkortasun handikoak atzean utzi behar dira.
3. Ekoizpen- eta kontsumo-erritmoa murriztea, ekosistemek eta biosferak asimilatzeke eta sortzeko gaitasunetara egokituz, defizit eta gehiegizko ustiapen ekologikoak saihesteko.
4. Kanpoko energia-ekarpen jarraitua; erregai fosilek ez dute behar adina ematen, eta, gainera, zikloak ezegonkortzen dituzte.

.....

## » HAUSNARKETA, BALIABIDE OSAGARRIAK ERABILIZ



20 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea eta zenbait bideo.
- **EDUKIAK:** Egungo sistema ekonomikoaren hazkunde mugagabearen eta hondakinen kudeaketaren inguruko eztabaida.
- **IRAUPENA:** 20 minutu.



### ■ ARIKETA:

Eztabaida zabalduko dugu, bi gai hauen inguruko **hausnarketa** sustatuz: egungo sistema ekonomikoaren hazkunde mugagabea eta hondakinen kudeaketa ekonomia linealean. Bi aukerak planteatu ditzaitezke, edo haietako bat. Iraupen laburreko bi bideoak hausnarketarako lagungarriak izan daitezke:

- Baliabideen kudeaketa. Hondakinak Hegoaldeko herrialdeetan 1:37 minutu.
- Zer herrialdek pairatzen dituzte gehien ingurumen- inpaktuen ondorioak? Oxfam-en txostena (29 orrialde).

*Bidezkoa iruditzen al zaizue?  
Zer konponbide proposatzen dituzue?*

- Arrantzalearen parabola: mugarik gabe haztea 3:37 minutu.
- “Finantzaria eta arrantzalea” ipuina (Econoplastas).

**Zenbat eta lan gehiago egin, diru gehiago irabazi eta ondasun gehiago kontsumitu, orduan eta zoriontsuagoak al gara?**

## » SAIOAREN AMAIERA



10 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Aztarna ekologikoa kalkulatzeko esteka.
- **EDUKIAK:** Ekonomia zirkularraren funtsezko printzipioetako hiru finkatu eta aztarna ekologikoa kalkulatu.
- **IRAUPENA:** 10 minutu.



### ■ ARIKETA:

Saioari amaiera emateko, Ekonomia zirkularraren funtsezko printzipioetako hiru finkatzen saiatuko gara.

*“Murriztea berrerabiltzea baino hobea da. Berrerabiltzea birziklatzea baino hobea da. Birziklatzea baztertzea baino hobea da.”*

Ikasleei proposatuko diegu beren aztarna ekologikoa kalkulatzeko, eta **pentsatzeko eguneroko bizitzan egiten duten zer ekintza aldatu dezaketen**, ekonomia zirkularra ezartzeko.

- Nola edo zer egiten zenuen lehen? Eta nola egingo duzu hemendik aurrera?




### 3. saioa

## Ekintzailletza zirkularra

Gidoia:

- Hasierako dinamika.** Nola imajinatzen dut Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako enpresa bat? (15 minutu).
- Dinamika nagusia.** Nola bihurtu ekintzailletza bat ekintzailletza zirkular? (65 minutu).
- Amaierako dinamika eta ebaluazioa** (10 minutu).



Saio honetarako, **3. eranskineko aurkezpena** erabiliko dugu, Mugarik Gabeko Ekonomialariek egindakoa.

#### » HASIERAKO DINAMIKA



10 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Materialik gabe.
- **EDUKIAK:** Slogan bat pentsatu etorkizuneko ekonomia zirkularreko enpresa batentzat.
- **IRAUPENA:** 10 minutu.

■ **EJERCICIO:** Nola imajinatzen dut Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako enpresa bat?

Ikasleei **3ko edo 4ko taldetan** jartzeko esango diegu. Talde horiek bere horretan jarraituko dute saio osoan zehar. Talde bakoitzari jarduera ekonomikoko sektore bat egokituko diogu (elikagaigintza/sukaldaritza, zaintza, kosmetika, ehungintza eta teknologia), eta **slogan bat pentsatu behar dute etorkizuneko enpresarentzat.**

#### » DINAMIKA NAGUSIA

### Nola bihurtu ekintzailletza bat ekintzailletza zirkular?



10 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea, IMugarik Gabeko Ekonomialarien lehen aurkezpena (3. eranskina), Canvas Soziala (4. eranskina) eta enpresa konbentzionalen Canvas eredua (5. eranskina).

■ **EDUKIAK:** Gure enpresaren Canvas Soziala egingo dugu

■ **IRAUPENA:** 65 minutu.




#### ■ ARIKETA:

3. eranskineko aurkezpena proiektatuz (2., 4., 5., 6. eta 7. orrialdeak), Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarrituta aritzen diren enpresen edo erakundeen arrakastaren adibide batzuk ezagutzera emango ditugu (5 minutu).



Ondoren, Canvas Sozial izeneko **lan-tresna** aurkeztu (4. eranskina), eta zertarako balio duen eta zer zati dituen azalduko dugu: 3. eranskina (9., 10., 11., 12. eta 13. orrialdeak). Gero, enpresa konbentzionalen Canvas eredua (5. eranskina) emango dizkiogu talde bakoitzari. Enpresa-motak aurretik egokitutako jarduera-sektorearekin bat etorri behar du (5 minutu).







Emandako aurkezpenean oinarrituta (3. *eranskina*), **Canvaseko puntu bakoitza azalduko dugu** (Zer, Nor, Nola eta Zenbat), eta, aldi berean, gure helburuari lagunduko dioten galdera eta ekintza zehatz batzuk aurkeztuko ditugu. Ikasleek, taldean, ahalegina egin behar dute Ekonomia zirkularraren printzipioak enpresaren eremu guztietan sartzeko.



Urratsez urrats lan egitea gomendatzen dugu; hau da, lehenik eta behin, Canvaseko lehen puntua aurkeztuko dugu: Zer? Balio-proposamena, zer esan nahi duen eta zer zatik osatzen duten. Inpaktu-galderak eman, eta 5 minutu utziko ditugu, atal hori landu dezaten. Ordena berean jarraituko dugu, Canvaseko bloke guztiak osatu arte (Zer, Nor, Nola eta Zenbat). Taldeei laguntzeko, egokia izango litzateke ideiaren bat iradokitzea eta negozio-ereduen arteko aliantzak egiten saiatzea (40 minutu; 10 minutu atal bakoitza azaltzeko eta garatzeko).



Dinamika hau amaitzeko, talde bakoitzari eskatuko diogu **Canvak aurkezteko** eta ikaskideei azaltzeko zer aldaketa egin dituen eta zergatik (15 minutu; 3 talde bakoitzeko).

## » AMAIERAKO DINAMIKA Ebaluazioa



10 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** Proiektorea eta Mentimeter (aukerazkoa).

■ **EDUKIAK:** Izandako eragina baloratu, Unitate Didaktikoa hobetzeko.

■ **IRAUPENA:** 10 minutu.

.....





### ■ **ARIKETA:**


Ebaluazioa. Ikasleei honako galdera hauei erantzuteko eskatuko diegu, izan dugun **eragina baloratzeko** eta unitate didaktikoa hobetzeko

- Zer iruditu zaizu interesgarriena saio bakoitzean?
- Zer utziko zenuke alde batera edo zer ez zaizu gustatu?
- Nola sentitu zara saioetan?
- Beste zerbait adierazi nahi al duzu?

Mentimeter bat egin daiteke zenbait panelekin, galdera bakoitzeko bat, eta beste galdera batzuk gehitu daitezke, egoki irudituz gero.

.....





# BALIABIDE OSAGARRIAK

## Beste saio batzuk

Mugarik Gabeko Ekonomialariek **beste bi lan-saio** ere sortu ditugu, ingurumen-inpaktuari eta ekoizpen- eta kontsumo-ereduei buruzko **ikuspegia zabaltzeko**. Zehazki:

- **1. saioa.** Desmontando mitos: crecimiento ilimitado y tecno-optimismo (50 minutu. Azalpena pdf formatuan).
- **2. saioa.** Situación de aprendizaje: La propuesta del decrecimiento (10 saio. Azalpena pdf formatuan).

## Beste dinamika batzuk

- Zer da ekonomia? “Ekonomia zeu zara” dinamika (6. *eranskina*). Ikasle bakoitzak hiru zerbitzu eskaini eta eskatu beharko dizkie ikaskideei, denbora-banku gisa trukeak egiteko (20 minutu).
- Alargascencia erabiliz, mapatu zuen udalerrian edo auzoan dauden Ekonomia zirkularreko erakundeak. Identifika al ditzakegu antzeko ekimenak gure lurraldean?
- Max Neefen arabeko beharren kartak (7. *eranskineko materiala*). 3, 4 edo 5eko taldeak egin, eta bakoitzari beharren bi karta desberdin eman behar zaizkio.
- **A dinamika)** Behar horietako bakoitza asetzen duen produktu edo zerbitzuren bat (edo beste zerbait) pentsatzeko eskatuko diegu; hots, bi asegarri pentsatu behar dituzte, beharren bi karta dituztelako. Ingurumena errespetatzen duten asegarriak izan behar dute.

Ondoren, asegarri horietakoren bat sinergiko bihurtzen saiatu behar dute, bi beharrei erantzun ahal izateko, ingurumen-ikuspegia galdu gabe. Jarduera amaitzeko, talde bakoitzak gainerako taldeei azalduko die zer behar egokitu zaizkion eta zer asegarri sinergiko pentsatu duen.


- **B dinamika)** Taldeek asegarri sinergiko gisa balio duen produktu edo zerbitzuren bat (edo beste zerbait) pentsatu behar dute, bi beharrak asetzen laguntzen duena.

Gero, etorkizuneko mundu baterako asegarri sinergiko bat asmatzea proposa diezaiekegu, kontuan hartuta onura ekonomikoaren maximizazioak eta hazkundeak ez dutela helburu nagusia izan behar. Mundu horretan, printzipio hauek gidatuko dute ekonomia: ekitatea, jasangarritasun ekologikoa, aberastasunaren bidezko banaketa, lankidetzeta, ingurunearekiko konpromisoa eta lan duina.

Produktu edo tresna bat bada, marraztu egin dezakete, eta zerbitzu bat bada, nolakoa izango litzatekeen adieraz dezakete (dinamika hau pixka bat konplexuagoa da, eta beste imajinario batzuetan pentsatzea eskatzen du; beraz, litekeena da 30 minutu behar izatea garatzeko).

- **C dinamika)** Ikasleei beren mundu perfektuan egun perfektua nolakoa izango litzatekeen imajinatzeko eskatuko diegu. Taldean egin beharko dute, eta, horrenbestez, ados jarri beharko dute elkarren artean. Ez dago inolako mugarik. Nahi dutena imajinatu dezakete: uharte zoragarri batean bizi direla, jolas-parke bat dutela etxean, armarik ez dagoela munduan edo etxeak gominolazkoak direla; nahi dutena, denak balio du. Jaikitzen direnetik gauean lotara joan arte egindako guztia kontatu behar dute. **Baldintza bakarra dago: egokitu zaizkien bi beharrak nola beteko lituzketen azaldu behar dute deskribapenean.**

Helburua da jakitea zein den ikasleen ustez behar horiek betetzeko modurik onena, eta hausnartzea zer printzipio eta balio dauden imajinario horren atzean: Dirua erabili al dugu? Mugikorra behar al genuen? Lagunekin al zeunden? Nola zegoen planeta une horretan? ... Egia esan, ez dago erantzun zuzenik; nahi dutena imajinatzeko aukera ematean mundu post-kapitalista bat imajinatzeko gai diren ikusi nahi dugu, eta horri buruz hausnartzen saiatuko gara.



## Beste material batzuk

### Kontsumoa:

- [Zer dira kontsumo-taldeak?](#)
- [Zergatik da garrantzitsua sasoiko produktuak jatea?](#)

### Zainketen ekonomia:

1. [Flujo circular de la renta, ¿quién se ausenta?](#) Mugarik Gabeko Ekono-mialariek egindakoa. 3 bideo ikustea eta jarduera interaktibo batzuk egitea planteatzen da, ondoren hausnartzeko (50 minutu).
  - Etxeetan egiten diren zereginak eta zaintza-lanak: Nori dagozkio? Zer garrantzi du horrek ekonomian? [1. bideoa](#)
  - *Homo solidaricus*: Nor da *homo economicus* izenekoa? Zer ondorio ditu indibidualismo metodologikoaren erabilerak? [2. bideoa](#)
  - Sistema naturala: Zer ondorio ditu haren faltak? [3. bideoa](#)
2. [Visibilizar lo invisibilizado: el iceberg de la economía feminista](#). Mate-rialen gordailua, hausnarketa egiteko ekonomiaren eta lanaren mugei buruz, generoak ekonomian duen zereginari buruz, etxeetan izaten diren prozesu produktiboak ikusezin egiteari buruz eta horrek gene-ro-desberdintasunetan dituen ondorioei buruz (50 minutu).
3. [Nola erabiltzen dugun denbora](#)

### Erroskillaren ekonomia:

1. [Erroskillaren ekonomiari buruzko bideoa](#)
2. [Kate Raworthen liburu honen erreseina: "Economía Rosquilla: siete maneras de pensar como un economista en el siglo XXI"](#)
3. [Infografía: ¿Qué otros hábitos puedes incorporar en tu día a día para que siga girando al rueda de la circularidad?](#)


### Irakasleentzat:

1. [Ekonomia zirkularrari buruzko txostena](#)
2. [Gida praktikoa: comprender la Economía Circular y el emprendimien-to social](#)
3. [Cuentos de la Economía](#)

## Bibliografia

- Basque Digital Innovation Center. (s.f.). Business Model Canvas. Gobierno Vasco. Recuperado el 29 de mayo de 2025, de <https://basquedcc.euskadi.eus/business-model-canvas/ac78-bdcc/es/>
- Bueno, Esther (s.f.) *La huella ecológica en España. Ecología de la vida cotidiana*. Centro Nacional de Educación Ambiental (CENEAM) ([https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitesco/es/ceneam/recursos/documentos/huella\\_tcm30-172158.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitesco/es/ceneam/recursos/documentos/huella_tcm30-172158.pdf))
- Chin, Diego (2021). *Reseña de "Economía Rosquilla: Siete maneras de pensar como un economista del siglo XXI" de Kate Raworth*. Econoplastas (<https://www.econoplastas.org/resena-de-economia-rosquilla-siete-maneras-de-pensar-comoun-economista-del-siglo-xxide-kate-raworth/>)
- Coraggio, J. L. (2011). *Economía social y solidaria: El trabajo antes que el capital*. Editorial Alberto Acosta y Esperanza Martínez.
- Economistas sin Fronteras (2018). Dossier nº 31. *Prácticas y herramientas para impulsar la Economía Social y Solidaria. Una reflexión compartida*. Economistas sin Fronteras. (<https://ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossieres-EsF-31-Pr%C3%A1cticas-y-herramientaspara-impulsar-la-ESS.pdf>)
- Economistas sin Fronteras (2020). *Hacia una economía más justa. Manual de corrientes heterodoxas* ([https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2021/01/Manual-de-corrienteseconomicas-heterodoxas\\_2-edicion.pdf](https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2021/01/Manual-de-corrienteseconomicas-heterodoxas_2-edicion.pdf))
- Economistas sin Fronteras (2020). *Manual de la economía social y solidaria*. Ecosfron. (<https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2020/03/Manual-cast.pdf>)
- Gómez, J. (2024). *Precariedad: datos frente a mantras*. Agenda Pública. *Análisis de Políticas Públicas* (<https://agendapublica.es/noticia/17669/precariedad-datos-frente-mantras>)
- Larruzea, A. (2023, 24 de abril). *MASLOWen PIRAMIDEA* [Infografía interactiva]. Genially. <https://view.genially.com/64464358c9ebaf00182b9cff/horizontal-infographic-diagrams-maslowen-piramidea>

- Neef, M (1991). *Desarrollo a Escala Humana*. Carlos Lohlé.
- Oxfam Intermón (2024). *Desigualdad S.A. Filial en España*. Oxfam Intermón. (<https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Website/oi-informes/davos-2024-desigualdadsa-filial-espana-resumen.pdf>)
- Oxfam Intermón (2016). *Economía para la minoría: Resumen ejecutivo*. Oxfam Intermón. (<https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Website/oi-informes/economia-para-minoriaresumen.pdf>)
- Oxfam Intermón (2023). *El 1% más rico acumula el 63% de la riqueza mundial*. Oxfam Intermón (<https://www.oxfamintermon.org/es/nota-de-prensa/el-1-mas-rico-acumula-63-riquezամundial>)
- Oxfam Intermón (2022). *La desigualdad mata: Cómo la desigualdad extrema está minando nuestra salud y nuestro futuro*. Oxfam. (<https://oxfamlibrary.openrepository.com/bitstream/handle/10546/621341/bp-inequality-kills-170122-summ-es.pdfv>)
- Oxfam Intermón (2024). *Un virus mortal: cinco datos escandalosos sobre la desigualdad extrema global y cómo combatirla*. Oxfam (<https://www.oxfam.org/es/cinco-datosescandalosos-sobre-la-desigualdad-extrema-global-y-como-combatirla>)
- Porro, Álvaro (2016). *¿Qué son las Economías Transformadoras? Opciones. Impulsem el consum conscient* (<https://opcions.org/es/las-economias-transformadoras/>)
- Segovia, Enrique (2007). *Revista de Agricultura y Medio Ambiente (Vols. 72-73)*. Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación ([https://www.mapa.gob.es/ministerio/pags/Biblioteca/Revistas/pdf\\_AM%2FAM\\_2007\\_72\\_73\\_73.pdf](https://www.mapa.gob.es/ministerio/pags/Biblioteca/Revistas/pdf_AM%2FAM_2007_72_73_73.pdf))
- WWF (2019). *Vivir por encima de los límites de la naturaleza* ([http://awsassets.wwf.es/downloads/wwf\\_overshoot\\_europa\\_esp.pdf](http://awsassets.wwf.es/downloads/wwf_overshoot_europa_esp.pdf))
- WWF (s.f.). *Día de la sobrecapacidad de la Tierra*. WWF ([https://www.wwf.es/nuestro\\_trabajo/informe\\_planeta\\_vivo\\_ipv/huella\\_ecologica/dia\\_de\\_la\\_sobrecapacidad\\_de\\_la\\_tierra/](https://www.wwf.es/nuestro_trabajo/informe_planeta_vivo_ipv/huella_ecologica/dia_de_la_sobrecapacidad_de_la_tierra/))





# ERANSKINAK




- 1. eranskina: [1. saioa. Ekonomia Zirkularra PPT](#)



- 2. eranskina: [Maslow-en piramidea](#)




- 3. eranskina: [3. saioa. Ekonomia Zirkularra PPT](#)



- 4. eranskina: [Canvas Soziala](#)



- 5. eranskina: [Canvas eredua ohiko enpresentzat](#)




- 6. eranskina: [Ekonomia zu zara](#)



- 7. eranskina: [Cartas de necesidades. Max Neef](#)





<https://ecosfron.org/euskadi>



Economistas sin Fronteras- EsF Euskadi



@ecosfron.euskadi

Mugarik gabeko  
Ekonomilariak



Economistas  
sin Fronteras

**Bizkaia**  
enpleguaren, giza- eta kulturalen arteko  
bainbiltasunerako konpromisoa duela  
alderantzizko erlazioen  
garapenera eta  
gizartearen sozializazioa



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN